



Material urratzailea xurgatzen duen hondar zurrustako makina

Dokumentu honetan, hondar zurrusta bidezko garbiketa lanak egoki eta seguru egiteko bete behar diren arauak eta jarraibideak bildu dira.

Zurrusta urratzaile bidez eginiko garbiketaren deskribapena eta erabilera

Garbiketa sistema honetan, partikula urratzailez eta aire konprimatuz edo lurrunez eratutako zurrusta proiektatzen da indar handiz gainazal baten kontra:

Pieza baten hondarra eta irregulartasunak garbitzeko.

Pieza baten pintura ezabatu eta garbitzeko.

Hilarriei akabera emateko, beira grabatu edo glaseatzeko, eta lan artistiko jakin batzuk egiteko.

Arrisku faktore garrantzitsuenak

Silize kristalinoarekiko esposizioak dituen arrisku faktore garrantzitsuenak, osasunari kalte egin diezaioketenak, honako hauek dira:

Hondarraren konposizioa. Zenbat eta handiagoa izan silize kristalino proportzioa, orduan eta handiagoa izango da ere arriskua.

Kuartzo harea arriskutsu egiten duen faktore nagusia da partikula oso txikiak heda daitezkeela langileak lana egiten duen lekuan. Partikula kopuru handi bat 16 mikrometrotik beherakoa da, eta biriken albeoloetara iristeko arriskua handitu egiten da diametro hori baino txikiagoa duten partikulak areagotu ahala.

Esposizio denborari dagokionez, zurrustatze lanean igarotako denboraz gainera, kontuan hartu behar da ere piezak kokatzen eta kentzen igarotako denbora, baita silize kristalino hautsa zabaldu den aldameneko lekuetan igarotakoa ere.

Silize kristalinoaz gainera, kontuan hartu behar dira ere hondar zurrustaz garbitzen den gainazal metalikoetatik askatutako partikulak: oxido metalikoak eta pintura pigmentuak, nagusiki.

Egiaztatu:

Hautsa xurgatzeko instalazioa, eta haren funtzionamendua.

Aireztapen orokorra.

Norbera babesteko ekipamendua (NBE).



Kontuan hartu beharreko beste faktore batzuk:

- Langileak patologiaren bat izatea, silize kristalino hautsak larriagotu dezakeena.
- Tabakoa erretzea.

Eskakizunak: Kontua hartu beharreko dokumentazioa:

Fabrikazio dataren arabera, makinak izan behar ditu:

CE marka.

CE adostasun aitortpena.

Fabrikatzailearen edo hornitzailearen erabilera eta mantenimendu jarraibideen eskuliburua, merkaturatzen den herrialdeko hizkuntzan. Tresna erabiltzean, kontuan hartu behar dira fabrikatzaileak emandako jarraibideak eta argibideak.

Makina alokatzen denean, kontratua.

1215/1997 EDren I eta II eranskinetan jasotako zehaztapenetara egokitzearen egiaztapena (lan ekipoak).

Aldez aurreko egiaztapenak. Makinaren egoera

Material urratzailea xurgatzen duen hondar zurrustako makinak egoera egokienean egon behar du.

Konexio elektrikoek ez dute kalte edo akatsik izan behar. Egiaztatu egin behar da elikatze tentsioa tresnaren ezaugarrien plakan agertzen den berbera dela.

Makinaren konexio larakoak erabiliko den korrante hargunerako balio behar du. Ezin da larakoa inolaz ere modifikatu. Ez erabili egokigailurik lur hargunea duten gailuetan. Dagozkien korrante harguneetara konektatutako larako egokiak erabiltzeak txikitu egiten du deskarga elektriko arriskua.

Makina konektatzen den instalazio elektrikoak etengailu magnetotermikoa eta disjuntore diferentziala eduki behar ditu, egoera egokienean.

Kontuz gailua ustekabeen abiaraztearekin. Ziurtatu gelditze posizioan dagoela korrante hargunera konektatu aurretik.

Langileak bete beharreko baldintzak



18 urtetik gorakoa izatea.

Osasun zaintzari dagokionez, lanpostuan aritzeko gaitasun agiria edukitzea.

Prestakuntza espezifikoko egiaztatua.

Tresna erabiltzeko baimena.

Erabilera

Erabilera jarraibideak

Tresna erabiltzean, kontuan hartu behar dira BETI fabrikatzailearen erabilera eta segurtasun jarraibideak. **Erantsita.**

Garrantzitsua da eskuilak landu behar den pieza ukitzea, material urratzailea ez sakabanatzeko.

Arretaz zaindu behar da makina aire konprimatuari konektatuta dagoenean.

Makina erabili behar da soil-soilik sortua izan den eginkizunerako.

Lan eremua

Eduki lanpostua garbi eta ondo argiztatua.

Lan egin oinarri sendo baten gainean, eta mantendu oreka beti. Ez erabili makina gainazal busti edo hezeen gainean.

Ez erabili erreminta elektrikoa leherketa arriskua dagoen tokian, erregai likidoa, gasa edo material hautsa dagoen lekuan.

Ez erabili makina hezetasun handiko lekuetan.

Ez jaurti zurrusta airerantz, eta bermatu eskuila beti garbitu nahi den gainazalaren gainean.

Prebentzio alderdi espezifikoak

Egin mantentze lan egokia, eta egiaztatu etengailua ondo dabilela.

Ez atera entxufea kabletik tira eginez.



Deskonektatu entxufea lana amaitzean.

Lan egitean, ipini ondo oinak, oreka ez galtzeko.

Ez erabili erreminta atmosfera leherkorretan.

Norbera babesteko ekipamendua

Langileak erabili behar ditu:

Segurtasun betaurrekoak. Maskara egokia: fabrikatzailearen arabera ez da beharrezkoa. Prebentzio Zerbitzuarentzat, gomendagarria. Segurtasun eskularruak. Belarri babesa.



Prebentzio mantenimendurako gida

Makinak xurgatzen duen hondarra berrerabili egin daiteke, ahalmen urratzailea duen bitartean. Ahalmen hori galtzean, hondar guztia ordeztu behar da, kontuz, gailuak duen telazko iragazkia garbituta.

Ez sartu makinan hondar hezerik, birziklaturik edo gailuak xurga ezin dezakeen tamainakorik.

Makinaren edozein mantentze lan egiteko, kendu egin behar dira aire presioa eta motorraren elikatze korrontea.

Ondoko mantenimendu taula ez da nahitaez bete beharrezkoa. Dena dela, informazio eta konparazio taula gisa balio dezake, fabrikatzailearen mantenimendu eta konponketa jarraibide eta abisuekin alderatzeko.